


# Arrasate

P R E S S U

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2001eko abenduaren 5a / 564. zenbakia

## Lastertasun Handiko Trena Mondragoen zehar

Abenduaren 15ean,  
LHTren kontrako manifestazio nazionala  
egingo dute Mondragoen



**ORAIN ETA HEMEN: EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA/8 • KULTURA: EUSKAL KULTURAREN AZOKA/12**



Haizetakoak 1,46 m<sup>2</sup>.

Zenbaki hutsa baino, adimen zabala.



Automobil baten helburua da zu leku batetik bestera eramatea. Baina Peugeot 307 berriari garrantzitsuena ez da ailegatze hutsa, eramaten zaituen espazioa baino. Monobolumenaren leku zabalak eta Berlina baten arimak bat egiten dute 307aren egitura osatzeko, eta, horrela, barrualde zabala, modularitatea eta argitasuna ematen dizkizu. Termikoki isolatutako haizetakoak beroa pilatzea ekiditen du, eta sabaiaren altuerak eta aulkien arteko lekuak bidaiari-leku ezin hobe sortzen dute, erosotasunaren aukera guztietara irekia.

Peugeot 307 gama: gasolina 75 ZPtik 138 ZPra (1.981.000 pezetatik/11.906.05 eurotik). Diesela HDI 70 ZPtik 110 ZPra (2.298.000 pezetatik/13.811.26 eurotik)

**PEUGEOT 307. EZ DA ZENBAKI HUTSA.**

#### ETORMOBIL

Otaola etorbidea 22  
Tel.: 943 20 09 66  
EIBAR

#### EKOMOBIL

Zaldipe auzoa z/g  
Tel.: 943 79 50 71  
ARRASATE

**307**   
PEUGEOT

## KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu Lastertasun Haundiko Trena?



**JABI ARIZABALETA**  
Langillie

Txarto pentsetan jat. Bieleko haundixe egin biher daue, baiñe ez dau euki biher hemen paradarik. Eta nik uste dot nahikue estropeau dittugule mendixek eta inguruek.



**VITORIANO ROMERO**  
Langillie

Txarto pentsetan jat, eta gauza askogatik, gaiñera. Proiektue ez jat bat be gusetan. Gaiñera, pentsetan jat ondiokan ez dukuela informaziño haundirik emun.



**ALAITZ BERATEGI**  
Langillie

Ez neuke egingo, ze uste dot ingurumena asko izorrazten dala. Barrikuntza dala eta akaso LHT eskaketan dabit, baiñe nik oin ez neuke egingo, ez jat egokixe pentsetan.



**PEDRO OLMO**  
Langillie

Txarto, ingurumenien egi-tten dauen kaltiagaittik, gehixenbat. Dana dala, ez nago oso ondo informaute; baiñe gaixe nahikue inportata jat eta ez nago bat be gus-tora egin biher dauenakin.



**IZASKUN ZUBIZARRETA**  
Etxekoandrea

Txarto. Mendixe zatittu egi-tten daue, eta herrixe txarto itxen daue... eta gaiñera, hamen ez da egongo paradarik. Pentsetan jat ez dagoela informaziño nahikorik, tapetan dabitzela.



**LEIRE IRAZABALBEITIA**  
Langillie

Uste dot ez dala biharrez-kue, eta mendixe asko apurtu biher dauela. Oingo, txarto pentsetan jat. Gaiñera, pentsetan dot ez dagoela informaziño nahikorik.

## TXALOAKETATXISTUAK



### TXISTUAK UROLOGIA ZERBITZUA FALTA DA ARRASATEN

Aurreko astean moduan, oraingoan ere, osasun etxeak ditugu hizpide. Jakinarazi digutenez, Arrasateko Ospitalean ez dago Urologia zerbitzurik. Horregatik, hainbat eta hainbat debagoiendar Gasteizera joan behar izaten dira halako premiak dituztenean. Irakurle batzuen esanetan, halako bat Arrasaten jarri beharko lukete.

## ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8

### Harreman-en azoka

Harreman Gobernu Kanpoko Erakundeak bidezko merkataritza azoka antolatuta du.

KIROLA /10

### Mondra garaile Soroluzen

Mondra Futbol taldeak 1-3 irabazi zion Soroluzeri zapatu arratsaldean jokaturako partiduan.

ZAHARRAK BERRI /13

### Iturbideko nagusienak

Joan den astean omendu zituzten Iturbide egoitzan 90 urte edo gehiago dituzten bazkideak.

## ASTEKODATUA

# 12.500

### MERKATARI GIDA BANATUKO DIRA DATORREN URTEAN

Goienak egiten duen Leintz ibarreko merkataria gida berriaren, 2002koaren, 12.500 ale banatuko dira datorren urte hasieran Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Aramaion.

## BESTEKEESANA

**Gure ideologia kooperatibistan pertsona da nagusi enpresa barruan eta hori Gipuzkoan edo**

**Euskal Herrian posible da. Dena den, atzerrian, Brasil edo Mexikon adibidez, ez da batere erraza gure erueda ezartzea. Horregatik hausnarketa sendoa egin beharra daukagu, gurea ez den eremu batean gure lan egiteko era sortu eta hedatzeko. Mundu globalizatu honetan gure ideologia kooperatibista non eta nola kokatzen den finkatzea erronka handia da gaur egun... Gizarte aldaketa handi baten aurrean gaude eta horrek hezkuntza mota berria dakar. Momentura arte egin duguna ez da nahikoa, hezkuntza sistema berri bat sortu behar dugu, beste leku batzuetan egiten dena aztertuta"**

**JABIER RETEGI**  
EUSKONEWS & MEDIA/01-11-22

## HERRITARRENBERBAK/ Antxon Mendizabal



### Afganistango sarraskia mintzagai

**O**rain, denboraren poderioz, perspektiba hobea daukagu.

Irailaren 11n Dorre Bikien aurka egindako guda ekintzak oro har inperio osoa ukitu du. Animalia zauritua bailtzan, inperioak herrien erresistentziaren aurrean egiten dakien gauza bakarra egin du: demokraziaren izenean izua ezarri.

Eta *demokraten* lotsagabekeriaren aurrean, "gerrari ez" defendatu dute pro-greek, lehen munduko alde goxoa adieraziz. Bi aldeek ezkutatzeko errealitatea. Egungo gertaera ez da bi potentziek egindako eraso inperialista, sarraskia eta hilketa baizik. Gizateriaren aurka mundu aberats honek egindako guda zapaltzailea.

50.000 milioi dolar eskatu dituzte Nazio Batuek munduko gosetea ezabatzeko, edo zehatzago esanda, planeta osoan 850 milioi pertsonak sufritzen dute gosetea, eta haien gabezia larriaren egoera gainditzeko. Baina horretarako nazioarteko era-

kundeez dirua ez dagoela diote. 50.000 milioi dolar dira AEBko kongresuak Bushi eman dizkionak, Afganistango herriaren aurka eraso militarra bideratzeko. Horretarako dirua soberan dago.

Dorre Bikien aurka eraso egin zuten balizko islamiarrek inperioaren botere ekonomiko

eta militarra jo zuten. Aldiz, "bizitzaren defentsan" eraso bideratu duten estatu boteretsuek eskolak, ospitaleak, hiriak, meskitak, espeteak, helburu gisa eduki dituzte. Milaka hildakorekin batera, Afganistango herritarrek euriak heriotza dakarreliku ikusi dute. Edozeini gainean jausi lekiokkeen euri-heriotza.

Versallesko hitzarmenak (1919) mundua banatu zuen, eta garai modernoaren lehen ordena berria ezarri. Yalta (1943) eta Postdamek (1945) mundu sozialistaren eta kapitalistaren arteko banaketa ezarri zuten. Eta Dorre Bikien erasoaren ondoren, inperialismoak mundu ordena berria ezartzen dihardu. Bakearen izenean eta herrien demokrazia parte hartzailearen aurka.

**"Animalia zauritua bailtzan, inperioak dakien gauza bakarra egin du: demokraziaren izenean izua ezarri, hain zuzen ere"**

# Arrasate

Otalora Lizentziaduna z/g  
20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 25 11

Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA  
Ubane Madera,  
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA  
Arantzazu Lagunilla,  
Izaskun Bolinaga,  
Natali Martinez  
Imanol Elortza

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-1124/88

ISSN  
0214-4654

TIRADA  
7.350 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- EGUAZTENA, 5**  
Amezua. Santa Marina 32. . . . . 943 79 09 74
- EGUENA, 6**  
Zabala. Zarugalde 42. . . . . 943 77 16 30
- EGUBAKOITZA, 7**  
A.Ruiz. Maala kalea 31. . . . . 943 79 14 09
- ZAPATUA, 8**  
A. Morales. Araba etorb. 17. . . . . 943 79 18 65
- DOMEKA, 9**  
A.Azkoaga. Ferrerías 1. . . . . 943 79 15 15
- ASTELEHENA, 10**  
M.F. Azkoaga. Iturriotz. . . . . 943 79 79 99
- MARTITZENA, 11**  
M. Corcuera. M. Aranbarri 1. . . . . 943 79 22 26

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- ERIETXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00  
Igoalatorioa. . . . . 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak. . . . . 943 79 39 00  
Emakumeak. . . . . 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentroa. . . . . 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**  
SOS Delak. . . . . 112  
Gurutze Gorria. . . . . 943 76 55 76  
DYA. . . . . 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua. . . . . 943 46 11 11  
Astelehenetik  
egubakoitzera. . . . . 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan. . . . . 14:00etatik 08:30era  
Asteburu eta jaiegunetan. . . . . egun osoa

- Arrasate**  
Astelehenetik  
egubakoitzera. . . . . 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan. . . . . 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:  
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50  
• Espezialitateak. . . . . 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea. . . . . 943 03 52 52  
• Kanpoko kontsultak. . . . . 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako ambulanziaz. . . . . 943 45 87 44

- ERTZAINZA**  
Arrasate. . . . . 943 79 71 99

- SUHILTZAILERAK**  
Udal taldea. . . . . 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua. . . . . 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea. . . . . 088

- MATXURAK**  
Urak (Udal zerbitzua). . . . . 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero). . . . . 943 12 01 62  
Gasa. . . . . 900 40 05 23  
. . . . . 943 79 78 44

- GARRAIOAK**  
Taxiak. . . . . 943 79 12 22  
PESA. . . . . 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENDAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza. . . . . 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza. . . . . 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron. . . . . 943 77 01 05

**MEZAK**

- |                                                                                                                                                                                                 |                                                                                                                                                          |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>San Joan parrokia</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)<br>Domeka<br>09:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz)<br>12:30 (elebiduna)                          | <b>San Andres eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)<br>Domeka<br>10:00 (elebiduna)<br>11:00 (euskaraz)<br>12:00 (gaztelaniaz)<br>13:00 (gaztelaniaz) |
| <b>San Frantzisko eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)<br>Domeka<br>09:00 (euskaraz)<br>10:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)<br>19:00 (gaztelaniaz) | <b>Santa Teresa eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)<br>Domeka<br>10:30 (gaztelaniaz)<br>11:30 San Isidron (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)        |
| <b>Uribarri parrokia</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)<br>Domeka<br>11:30 (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)                                                                                   | <b>Santa Marinako eliza</b><br>Jaiegun bezpera eta zapatua<br>19:00 (gaztelaniaz)<br>Domeka<br>12:00 (gaztelaniaz)                                       |

**OHARRAK**

**MUS TXAPELKETA MAALAN**  
Monte eta Kimetz tabernek II. Mus Txapelketa antolatuta dute. Abenduaren 7an izango da txapelketa, 22:30ean. Interesatuak lehenbailehen eman beharko dute izena.

**BEDOÑAKO JAIK**  
Abenduaren 7an, iluntzean, etxafuego jaurtiketa eta luntza Loramendi elkarte-an. Zapatuan, goizean goizetik, etxafuego jaurtiketa; buruhandiak; Txakur beltz handi eta iletsu bat antzezlan; ume jolasak eta Eriz magoa; arratsaldean, Gorriti eta bere animaliak; txokolate-jana; gaztaina erreka; mus eta briska txapelketak eta auzo afaria, txiste kontalari eta dantzaldi eta guzti. Domekan, salda, doke txapelketa, meza eta Lore Gazteak.

**'KATIUSKA' AMAIA ANTZOKIAN**  
Abenduaren 15ean eta 16an, Pablo Sorozabalen *Katiuska* zartzueta eskainiko du Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak Amaia antzokian.

**HARREMAN-EN BERBALDIA**  
Harreman-ek *Hego eta Ertamerikako errealitatea gazteen ikuspuntutik* berbaldia antolatu du abenduaren 12an Monterronen, 19:00etan.

**AEDren AGENDA**

**BERTSOLARI TXAPELKETARA**  
Abenduaren 16an Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera joateko autobusa antolatu dute. Garraioa, bazkaria eta sarrera, dena 7.000 pezetan. Bertsozaleko kide izanez gero, 6.000 pezetan, eta 16 urte edo gazteagoek, 4.000 pezetan. Izena eman abenduaren 11 baino lehen.


**URBANOEN ORDUTEGIA**

- Gorostizatik Eroskira**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
- IBILBIDEA:** Gorostiza, Erguin B, Arimazuri, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, Ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
- IBILBIDEA:** Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Inarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**Gipuzkoako XII. Akordeoi Lehiaketa Arrasaten**

Asteburuan, Gipuzkoako XII. Akordeoi Lehiaketa egingo da Mondragoen. Berrehun akordeoilarik hartuko dute parte, hainbat arlo eta mailatan. Jaialdi eta lehiaketan parte hartzen dutenek Batxilergo Institutuan izango dituzte saioak, eta azken jaialdia Amaia antzokian izango da.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Lapikokua"*



Eltzekoa, lekale egosiak. *-Lapikokua* jan ezker eztau besterik biar izaten.

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**'Katiuska' zartzueta astelehenean**

Abenduaren 10ean, goizeko 10etan, Katiuska zartzueta inguruan jardungo dute Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak kideek. Abenduaren 15ean eta 16an jokatu dute Sorozabalen Katiuska lana Amaia antzokian. Azken egunetan buru-belarri dabilta zartzueta prestatzen, eta nondik norako guztiak kontatuko dituzte herriko irradian. Elkarrizketa hori bukatu bezain laster, ziber okupazioaren gainean egingo digu berba Uxue Bolinagak, eta jarraian musikari egingo diogu tartea. Datoren astelehenean, Ana Belen eta Victor Manuel bikoteak kaleratu berri duen diskoa aurkeztuko digu Aitziber Azkondok.

**Asteko errepassoan, akordeoi txapelketa**

Akordeoi txapelketa dela-eta, Amaia Lizaso antolatzaileari egingo elkarrizketa eskainiko dizuegu aste bukaeran. Txapelketaren inguruko azalpenak emango ditu Amaia Lizasok. Horrez gain, Carlos Urbietta Arrasateko frantziskotarren arduradunarekin izandako solasaldia entzungai izango da, baita Bedoñako jaiak direla-eta auzoalkateari egingakoa ere. Iban Arantzabal Goienako kideak, bestalde, Kutxa-ren Interneteko Ekintzaileen II. Lehiaketan lehen saria eskuratu du, eta saria irabazteko zein proiektu aurkeztu duen kontatuko digu. Eta gaztainen inguruko informazioa gura baduzue, ez galdu Amaia Aranburuzabalaren tartea.

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Eguaztena, 28	<b>1°C</b>
<b>MAXIMOA</b> Domeka, 2	<b>16°C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m²)</b>	<b>9,7 l</b>
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 28	9°C 1°C 9,7 l/m²
Eguena, 29	12°C 4°C - l/m²
Egubakoitza, 30	14°C 7°C - l/m²
Zapatua, 1	12°C 5°C - l/m²
Domeka, 2	16°C 7°C - l/m²

Bergerako San Juan auzoan jasotako datuak



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

- EGUENA**  
Musika egun guztian
- EGUBAKOITZA**  
Musika egun guztian
- ZAPATUA**  
10:00 Musika klasikoa  
11:00 Asteko elkarrizketak  
23:00 Hitz eta Pitz (errep.)  
24:00 MIR (errep.)
- DOMEKA**  
11:00 Asteko elkarrizketak  
23:00 Mikelenea (errep.)
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
09:00 Albistegia  
09:30 Igo autobusera  
11:30 Albistegia  
12:00 Musika  
14:00 Errepikapena
- ASTELEHENA**  
21:00 Maiuskulaz idatzitako Rock-a
- MARTIZENA**  
21:00 Hi bizi hadi
- EGUAZTENA**  
21:00 Hitz eta pitz

## ASTEABIHITZETAN

### Nafarroaren Eguna ospatu zuten joan den zapatuan herriko plazan

San Frantzisko Xabier Eguna gertu zegoela-eta, Debagoieneko nafarrek Mondragoen ospatu zuten euren patrioiaren eguna zapatuan. Eguerdia aldera ospakizunei hasiera eman eta piper zein ardo goxoa dastatzeko aukera egon zen herriko plazan. Barrenak ase bezain laster, Voces Navarras taldeak jota emanaldia egin zuen. Giro alaietan, hortaz, gosea egin eta Musakola Hostalera jo zuten ondoren, bazkaltzera. Ziur jaiak gerora ere segitu zuela.

### Hiesaren Nazioarteko Egunean elkartasuna eta informazioa landu zituzten gurean

Abenduaren 1ean, Hiesaren Nazioarteko Eguna ospatu zen Arrasaten. Beste herri batzuetan moduan, hiesa dutenei elkartasuna erakutsi eta gaixotasunaren inguruko informazioa landu eta banatu zuten Hies Berrikoek, herriko plazan jarritako informazio mahai baten bitartez. Iluntzean, gainera, Hamlet antzerki taldeak antzezlan eskaini zuen herriko plazan bertan. Antolatzaileek konpromiso serioa eskatu zieten gizarteari eta arduradun politikoei.

### San Frantzisko Xabier Ikastolak patrioiaren eguna gogorarazi zuen

Arrasateko nafarrek ez bezala, San Frantzisko Xabier Ikastolako ume, gaztetxo eta irakasleek euren patrioiaren eguna dagokion egunean ospatu zuten, hau da, abenduaren 3an. Goizean goizetik jolasean aritu ziren gaztetxoak: futboleak, musean eta kantuan, hain zuzen ere. Goiz erdialdera-edo, beharrezko atsedenalditxo hartu zuten, baita ohiko txorizo ogitartekoa jan ere. Freskagarriak ere izan ziren, DBHko laugarren mailakoek txosna jarri zuten-eta.



### ANV alderdiak 71. urteurrena ospatu zuen Mondragoen eta gudariak omendu zituen

ANV-EAE alderdiak 71. urteurrena ospatu zuen zapatuan. Udaletxean harrera egin eta Udala plazan omenaldia egin zuten gerra frontean eta gerora hildakoei, sasoko emakumei, baita Roberto, Zapa eta Emiliri ere.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

## Euskarazko kultura

Jakinarazi didatenez, Jaurreko astean aipatutako bi gazteren epaia nolabait konpondu da eta azkenean absolbitu egin dituzte. Bueno ba, mundua ez ei doa hain gaizki alor guztietan, halaxe pentsatu beharko dugu.

Gaiez aldatuz, Durango-ko azoka etorri zait burura. Euskal edo euskarazko kultura zati handi batek bat

egiten duen azoka baino topagune berezia den hori. Han egongo da Arrasateko Apokaliftin Kultura Elkar-tea ere, gero eta produktu osatuagoak kaleratzen gogotsu diharduena. A zer marka!

Euskarazko ekoizpen eta kultura kontsumitzen duen jende askok jotzen du hara urtero-urtero. Erosi ere, gehienetan zerbait erosten

dugu askok. Ezta gutxiago ere!

Kontua beste bat omen da. Durangon bertan produktuak erosten baditugu ere, euskarazko zenbat produktu erosten ditugu urtean? Nola bizi irauten du euskal kulturegintzak?

Gainera, ohituragatik eta egungo teknologia berriek kentzen diguten denboragatik eta ematen dizkiguten aukerengatik gutxiago irakurri eta gehiago pirateatzeko joera dugu.

## ASTEKOIRUDIA



SAIOA OJANGUREN

### EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA AURKEZTU DUTE

Joan den astean, Arrasateko euskalgintza osatzen duten zenbait elkartetek Euskararen Plan Estrategikoa aurkeztu zuten Udaletxeko areto nagusian. Lehenengo aldiz Arrasaten euskararen normalizazioan zerikusi zuzena duten erakunde guztiek bat egin dute, hausnarketa sakona egiteko asmoz.

Horren bitartez, euskalgintzaren plan estrategikoa abian jarri berri dute. Dagoeneko prozedura zehaztuta dago, baita epeak ere. Are gehiago, plan estrategikoko organoak, hau da, jarraipen batzordea eta lantaldea, eratu berri dira. Egitasmo garrantzitsu honek emango du zeresanik aurrerantzean.

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

M  
ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABAETA  
Tel.: 943 79 08 07

M

MEMESA

Industria  
hornidurak

Tel. 943 71 24 25

UGARAN  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel: 943 79 76 58  
ARRASATE



Sail eta etxebizitzaren  
salmenta  
Eskoriatzan

Udalatx  
Inmobiliaria A

Tel.: 943 79 59 99  
Faxa: 943 79 92 00  
Maalako Errabala, 27 behea-ekz.  
ARRASATE

AZPIEGITURAK/LHTren kontrako manifestazioa deitu du AHT Gelditu Elkarlanak

# LHTren proiektua aurrera doan neurrian, kontrako iritziak areagotzen ari dira

UBANE MADERA

Abenduaren 15erako Lastertasun Handiko Trenaren kontrako manifestazioa deitu du AHT Gelditu Elkarlanak. Mondragoen izango da. Izan ere, Mondragoe da LHTk zeharkatuko duen herrietako bat. Eta horrek aldeko zein kontrako iritziak eragin ditu herrian.

Euskal Autonomia Erkidegoan Y itxura hartuko du Lastertasun Handiko Trenak, hiru bide izango dira eta nagusiak: Bilborakoa, Donostiarakoa eta Gasteizera joatekoa. Eta, hain justu, hiru bideak gure ibarrean elkartuko dira. Ondorioz, gure ingurura hiru lekutatik sartuko da trena: Bergararik (Angiozartik), Aramaioetik eta Elorriotik.

## ARRASATEN ZELAN


Donostiatik Bilbora doana Angiozarko auzotik joango da (Arrasate ez du ukituko). Donostiatik Gasteizera doana, berriz, Arrasatetik pasatuko da: Udalaitez mendiaren barrutik tunel bidez. Eta, gainera, tunel barruan bi ibilbide gurutzatuko dira, Gasteiztik Donostiarakoa eta Bilbotik Gasteizerainokoa, eta ondorioz, biendako pasabidea egin beharko da, bi mailatako bidegurutzearen bitartez, Udalaitez puntatik 800 bat metro sakoneran egingo dute hori, mendi barruan. Gero, trena berriro ere azalera irtengo da Txukurriko baserri inguruan. Eta, handik, Garagaratza ingurura joango da. Santa Agedatik ikusiko da berriro ere, Ibabe baserri inguruan. Izan ere, zatirik handiena tunelean joango da, ahalik eta gutxien ikusteko.

Kontuan hartu behar da Lastertasun Handiko Trena bereziki delatzen. Izenak dioen moduan, lastertasun handia hartzen du (220 km/orduko), eta ondorioz, bide zuzen-zuzena behar du. Asko jota, %1'5eko aldapa duen bidea onartzen du, baina ez gehiago. Eta gure orografia nahaspilatsuen eraginez, bide ahalik eta zuzenena egiteko, errekak zeharkatuko dituzte zubi erraldoiak eta mendiak zeharkatuko dituzten tunel erraldoiak beharrezkoak dira. Adibidez, Aramaiorako bidean, Untzillako bidegurutzeara dagoen lekuan, zubi bat pasatuko da, gutxi gorabehera, 80 metrora.

## KONTRAKOAK

Hain justu, horrelako beharrek sortu dituzte proiektuarekiko protestak. Batetik, ingurumenari egingo dion eraso handia izango delako, eta bestetik, horrelako azpiegiturak egiteko derrigorrezkoa delako oso inbertsio handiak egitea.

Adibidez, Arrasateko AHTren



EUSKALDUNÓN EGUNKARIA

Lastertasun Handiko Trena gure ibarretik igaroko da. Mondragoen Udaltz zeharkatuko du, tunelean.

Kontrako Asanbleak salatu du EAEk Udalaitez Interesa duen Lekune eta Eremu natural gisa duela izendatuta; egin beharreko tunelek lur eta harri mordoak aterako dutela eta, ondorioz, zabortegi izugarriak egin beharko dituztela, aldaketa fisiko handia eraginez; Udaltzaren aberastasun geologikoa ere aipatzen dute (kareharri arrezifalez osatua dago), naturalistikoa (zuhaitzak) eta inguru hartan babestutako landareak daudela. Horrekin batera, tren hori egiteko behar

den inbertsioa salatu dute, ekarriko dituen energia gastuak eta trenak ez dutela konponduko Euskal Herriak dituen beharrak.

## BABESERAKO NEURRIAK

Espainiako Ingurumen Ministerioak, bere aldetik, adierazi du trena egiteak ekarriko dituen kalteak gutxitzeko neurriak hartuko dituela. Adibidez, landaretzari ahalik eta erasorik txikiena egiten saiatuko dira, lanak gutxieneko espaziora mugatuta; edo lanak bukatu eta gero, berriro ere

arbolak eta landareak landatuta. Gaineratu dute ez dutela isuririk botako erreketara, eta bereziki, Aramaio, Kobateko, Garagaratzako eta Mazmelako arteak zainduko dituztela.

Bestalde, zabortegiak bereziki zainduko dituztela ere adierazi dute, eta argi eta garbi adieraziko dutela non ipiniko dituzten 50.000 metro kubikodun zabortegiak. Horrekin batera, ondare historiko-arkeologikoa babestuko dutela. Horren harira, hasierako proiektua onartu aurretik, alega-

zioak aztertzeke orduan, Ingurumen Ministerioak Arrasateko Udalaren alegazioa onartu zuen. Lezetxiki eta Kobate babesteko egindakoa. Hain justu, Udala eskatzen zuen trenaren ibilbidea kobazuloetatik apurtxo bat urrutitzea. Eta Ingurumen Ministerioak onartu egin du ibilbidea 20 metro mendebalderantz eramatea.

Baina Udalaren alegazioekin batera, LHTren proiektuak, onartu har, 693 alegazio jaso zituen, tartean, EHNERena, Greenpeace, Batasuna eta EB alderdiak, eta mendi talde eta ekologista talde askorena. Horien artean, Mondragoeko AHTren Aurkako Asanblearena eta AHT Gelditu Elkarlanaren izeneko taldearena.

Izan ere, nuklearrekin edo Lastarango autobiarekin egin zezakeen moduan, Lastertasun Handiko Trenaren kontra ere, Euskal Herri mailako plataforma bat eratu du AHT Gelditu Elkarlana. Politikariak, ekologistak, kultura taldeak, sindikatuak eta beste mota batzuetako taldeak batzen ditu talde horrek. Lastertasun Handiko Trenaren kontra daude, besteak beste, tren horrek ingurumenari eragindako kaltearengatik, usatutako dutelako ez diola erantzuten Euskal Herriaren beharrei eta, gainera, oso inbertsio handia behar duela. Horregatik guztiak deitu dute manifestazioa datorren abenduaren 15erako.

Orain, lanak egiteko proiektua idaztea falta da. Hau da, lanak zelan, non eta noiz egingo diren zehaztea. Zatika egingo dute, horretarako Eibar-Gasteiz autobidearekin egingo ari diren moduan. Eta gure hasiko dira praktikan lanak egiten. Asko falta da, baina, edozein ere, gizartean zeresan handia eragingo du gai honek, eta oraindik ere eragingo du.

## Arrasateko alderdi politikoaren iritzia

**Paco García (PSE-EE):** Aurrerapena ekarriko duen edozeren alde gaude, baita LHTren alde ere. Eskualdeari eta, oro har, Euskadiri on egingo die. Mota horretako komunikazio bideen alde gaude, betiere, ingurumena babesten duen legedia betetzen badu, ingurumenari ahalik eta kalte gutxien eraginez.

**Jose Mari Urizar 'Ametzu' (EA):** Hasiera baten ados gaude. Gauzak ikusi, aztertu eta baloratu behar dira; eta oraindik ez dakigu horrelako zerbait komeni zaigun edo ez. Gaur balio ez duenak akaso biharko balio du, eta ezin dugu gure herria aparte utzi. Hori bai, horrelakoak ezin dira edozein prezioan egin. Kasu honetan, ingurumenari eragingo dion kaltea bereziki zaindu beharko da.

**Antonio Palacios (PP):** Gu komunikazio bide azkarren aldekoak gara betidanik,

aurrerapenari ezin zaio eta mugarik ipini. Politikoki ez da eroso, errazagoa delako aurka egitea, baina argi dago Debagoienak Mesetarekin lotura izatea behar duela: Madrildik Arabaraino eta handik aurrera. Ingurumenari ahalik eta kalte txikiena egin behar zaio.

**Xabier Zubizarreta (Batasuna):** Oso jarrera kritikoa eta aurkakoa dugu, bi arazoarengatik: ingurumenari egiten dion eraso eta proiektu horrek eta bere tren ereduak ez diolako erantzuten Euskal Herriaren beharrei, ezta Euskal Herri osorako egin beharko litzatekeen komunikabide egituraketari ere. Ez da errentagarria, inbertsio izugarriak egin behar direlako eta nazio ikuspegitik ez dituelako gure beharrak betetzen, Bilboren onurarako Nafarroa alde batera uzten duelako, eta Madrilen

beharrak babesten ditu.

**Jose Maria Loiti (EAJ):** Alde gaude, azpiegitura berria delako eta etorkizunerako ona izango dela uste dugulako. Komunikazio bideen azkartasunean dago herriaren etorkizunaren oinarria. Horren adibide, jende guztiak erabiltzen dituen autobideak. Eta errepideak autoz betetzen direnean irtenbideak eskatzen dituzte.

**Joseba Ugalde (EB):** Ez gaude ados. Batetik, ingurumenari egingo dion kaltearengatik, eta bestetik, gizarteari ez diolako onik egiten. Hiriburuko batetik bestera edo Europara doazenean erabili ko dute bakarrik; interes ekonomiko hutsak daude tartean, eta guk Italiako alternatiba defendatzen dugu. Gasteizko gobernua proiektua aztertzen ari da, baina ez da nahikoa.

## Euskadiko Kutxa

Nikon kamera bat sukurtsalera ez joateagatik.


**Nikon**

**NIKON AF 230** • Fokatze automatikoa • Objektibo angeluhandia • Pelikularen aurrerapen automatikoa • Flash automatikoa barne • Begi gorriak murrizteko gailua

08000517 / 10-01

Aldatzen ari da gure finantza-entitatearekin harremanak izateko modua. Dagoeneko ez dago sukurtsalera joan beharrik ohiko gestioak egiteko. Telefonoz edo internet bidez konpontzen dira. Eragiketaren bat egiteko premia duzun bakoitzean, deitu 901 333 444 telefonora, edo konektatu [www.cajalaboral.com](http://www.cajalaboral.com) helbidearekin. Irabazten aterako zara, zeren eta urriaren 1etik abenduaren 31ra bitartean Telearbanka eta Caja Laboral Net erabiltzen duten bezeroen artean, HILERO 50 NIKON ZOZKATUKO BAITITUGU.

901 333 444  
[www.cajalaboral.es](http://www.cajalaboral.es)

  
**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA

Zurekin  
elkarlanean

## Euskararen Plan Estrategikoa bide onetik euskararen normalizaziorantz

UBANE MADERA

Euskararen Plan Estrategikoa aurkeztu zuten joan den astean. Euskararen normalizazioan zerikusia duten erakunde guztiak batu ziren Udaletxean. Bestalde, astelehenean, Euskararen Nazioarteko Eguna izan zen, "errebindikazioak eta ospakizunak egiteko eguna".

Astelehenean, Euskararen Mundu Eguna izan zen. Eta horrela koetan ohi denez, leku askotan gogoratu zuten gure hizkuntzaren antzinakotasuna, gaur egungo egoera eta etorkizuna.

Mondragoen Arrasate Euskal dun Dezagun elkarteak "errebindikazioak egiteko eguna izateaz gain, ospakizunak egiteko ere badea" gogorarazi zuen. Izan ere, Mondragoen gauzatu gura duten plan estrategikoaren barruan, "oro har, herri honetan plan estrategikoa garatzeko borondatea dagoela ikusi dugu; Plan Estrategikoa denon parte hartzearekin ipiniko dugu abian, eta hori ospatzeko modukoa da". Aipamen berezia egin zieten herriko ikastetxei: "Plan estrategikoan euren inplikazioa eta parte hartzea eskatzen ari gara eta oso pozik gaude erakutsi duten jarrerarekin".

### AURKEZPENA

Izan ere, Euskararen Plan Estrategikoa aurrera doa Mondragoen. Aurreko astean, aurkezpena egin zuten Udaletxeko areto nagusian. Hantxe izan ziren euskararen normalizazioan zerikusi zuzena duten talde eta erakundeak: besteak bes-



Euskalgintzako hamabost bat elkarte batu ziren Plan Estrategikoaren aurkezpenean.

te, AED, Arrasateko Udala, Ekin Emakume Taldea, Erguin herri eskola, Arizmendi Ikastola eta Goiena Komunikabideak.

Kontua da Euskararen Plan Estrategikoaren barruan, orain arte, prozesua definitzeko lanak egin dituztela, eta hemendik aurrera, euskararen normalizazioan zerikusia dutenek esku hartuko dute. Horrexegatik elkartu ziren joan den astean, orain artekoak eta hemendik aurrerakoak denen artean azaldu, argitu eta komentatzeko, hain justu.

### AITZINDARIA

Mondragoe aitzindaria da Euskararen Plan Estrategikoa gauzatzeko orduan. Euskal Herrian, guztira, 13 herritan ari da gauzatzen plan estrategikoa, froga moduan;

eta horietako bat da Mondragoe. Era berean, gainerako herrietan lehenengo urratsa gizarte eragileengana jotzea izan bada ere, Arrasateko euskalgintzak erabaki du lehenengo hausnarketa propioa egitea: "Inori euskalduntzeko eskatu aurretik, gu izan behar gara eredu, lehenengo gu euskaldundu behar gara. Bestalde, herriaren euskalduntze prozesuan Euskalgintzak du erantzukizuna, eta derrigorrezkoa da lan illoak eza-gutzea". Hori egin eta gero, gizarte eragileekin izango dira, konpromiso prozesuan sartuko dira: "Bakoitzak bere arloan ikus dezala euskararen egoera zein den eta norberak ikusiko du zein pauso eman gura duen bere arloa euskalduntzeko. Norberak emango ditu gura dituen pausoak".

## Abenduan bidezko merkataritza Hirugarren Munduari laguntzeko

Urteroko ohiturari jarraituz, oraingo astetik abenduaren amaierara arte bidezko merkataritza oinarritutako azoka izango da Seber Altuben, frantziskotarretan. Harreman Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatuta, "Hirugarren Munduko Kooperatibetan egindako artisautea eta eskulanak gozatu eta erosteko aukera izango da". Eta, gainera, "Arrasatearrei beste herrialdeetako pertsonekin solidarizatu eta gizaki guztiak aukera berberak izango lituzketeneko mundu bidezkoago baten alde lankidetzan aritzeko aukera zabaldu" gura die Harremanek.

Eguaztenean (gaur) izango da inaugurazioa, iluntzeko 20:00etan, Goikobaluren kontzertu batekin (San Frantzisko elizan). Hortik abendura bukatu arte, azoka zabalik izango da 18:00etatik 20:00etara lanegunetan eta 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara jaiegu-



Gaur zabalduko dute azoka.

netan.

### SAN CLEMERENDAKO

Besteak beste, Gabonetako azokan lortzen duten diruarekin, San Clemente izeneko proiektuan dihardute. Kolonbiako

Andeetan kokatutako Guatica herrian. Proiektuaren helburua da elikaduraren industriarekin, nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin lotutako teknika eta ezagutza berriak zabalduko dituzten eskola-lantegiak eraiki eta behar duten ekipamenduaz hornitzea.

### HITZALDIK ETA DEIALDIA

Bestalde, Harreman GKEk hitzaldia antolatu du datorren abenduaren 12rako (eguztana). Hego eta Ertamerikako errealtatearen berri emango dute, bost gazteren ikuspuntutik, *Euskal Kooperante Gazteak* izeneko programan ibilitakoak guztiak. 19:00etan izango da hitzaldia, Monterronen.

Horrez gain, Harremanek jakinarazi du ideia eta proiektu mordoska dituela, baina jendea behar dutela proiektuak garatzeko. Hortaz, deialdi berezia egiten dute.

## LABUR

### Eroski taldeak ez ditu igoko produktuen prezioak, harik eta eurora egokitu arte

Mondragoeko Hiper Eroskin, Euskal Herriko gainerakoetan modurik ez dugu ohiko prezio igoerarik igarriko urte hasieran. Izan ere, Eroski taldeak erabaki du preziorik ez igotzea. *Euroa konfiantza* osorik izeneko kanpainaren barruan, erabaki du 2002ko martxoa arte preziorik ez igotzea, horrela, euroaren sarrera errazteko. Guztira, 1,50 saltokitan egingo dute kanpaina. Bestalde, produktu guztietan prezioa bi modutan agertuko da, eurotan eta pezetatan, eta kalkulatu oker egotekotan, dirua bueltatuko du Eroskik.

### Abendualdi liturgikoa hasi da. San Joan Bataiatzailea parrokiak ekimen bereziak

Abenduarekin batera, egun bereziak hasi dira elizarendako. Horren adibide da San Joan Bataiatzailea parrokiak datozen egunotarako antolatu dituen ekimenak. Hasteko, astelehenetik egubakoitzera Goiz Otoitza izango da. Eliza 12:00ak arte zabalik egongo da goizez eta 18:00etatik 20:00etara arratsaldean. Egubakoitzero, berriz, Bakarkako Aitortzak izango dira eta datorren zapatuan Kontzezino Egunean, meza nagusia izango da abesbatzak kantatuta. Gainerako mezak jaiegunen orduetan izango dira.

### Santamasetarako egitarau berezia lantzen ari dira herriko koadrilak lehenengo aldiz

Santamas jaiak datozela-eta, herriko koadrilak gazteendako ekimendak antolatzen ari dira. Besteak beste, Santamas egunerako honako egitaraua antolatu dute: goizeko 11:00etan traka eta txupinazoa; gero, sagardoa eta txistorra jateko aukera izango da gure tetxean. Hamarretakoa egin eta gero, denak batera azoka ikusitara joango dira, eta ondoren, herri bazkarira joateko deialdia egingo dute. Bestalde, 18:00ak aldera triki-poteoa izango da, herri bazkariko partaideekin. Irailtik ari dira horixe prestatzen.

### Energia hizpide Mondragoen. Erakusketa, hitzaldia eta tailerra abenduan.

Energia izango da hizpide Mondragoen abenduaren 10etik 19ra bitartean. Energia iturriak, energiaren kontsumoak ingurumenarekin duen eragina eta energia aurrezteko zenbait adibide aztertuko dituzte, hain zuzen ere. Horretarako, *Energia Gela* izeneko erakusketa izango da ikusgai Monterronen egun horietan, 18:00etatik 20:00etara. Erakusketa, bereziki, herriko eskolei zuzendutakoa da. Bestalde, *Energia aurrezteko tailerra* izango da abenduaren 11n Monterronen, 18:30etik 20:30era. Eta, bukatzeko, abenduaren 13an, *Energia berriztagarriak gaur eta hemen* hitzaldia egingo du Jokin Aldazabalek Monterronen, 19:00etan.



### Urte hasieran 2002ko telefono gida

Urtarril amaieran edo otsail hasieran banatuko du 2002. urteko gida Goiena Kooperatibak. Aurten, 12.500 ale plazaratuko dira, etxebizitza, denda eta saltokietan. Eta berritasun moduan, Gatzagako, Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Arrasateko telefonoekin batera Aramaiokoak ere aurkituko ditugu. Gotzon Arzallus arduradunaren esanetan, "jendeak oso ondo hartzen du, bereziki, horrenbeste giden artean hauxe delako *etxekoa*".





## MUSIKARIEN AMABIRJINA

**J**oan den eguenean, hilaren 22an, musikariek izan zuten zer ospatu; izan ere, musikarien amabirjinaren eguna zen. Santa Zezilia amabirjina ezaguna da, baina gutxi ezagutzen dute haren historia. Behartuta ezkondu zen, eta birjintasuna errespetatzeko eskatu zion senarrari. Amabirjina hil egin zuten, eta 1599an Maderna eskultoreak haren gorpua ikusi eta marmolezko irudia egin zion.



## 'MISTER X' BERRIRO MUNDURA

**O**rain dela hiru urte, ARRASATE PRESSek *Mister X*-rekin egoteko aukera izan zuen. Munduaren ikuspegi propioa erakutsi zigan *Mister X* jaunak, eta bere bizitzaren berri ere eman zigan. Hausnarketarako aukera aproposa eskaini zigan, eta oraingo egunetan, haren bisita izan dugu erredakzioan. Beste bat arte, *Mister X!*

## LAUDIOKO IKASLEAK GUREAN

**J**oan den egubakoitzean, Laudioko ikastolako ikasleen bisita izan genuen ARRASATE PRESSen. Ikasle mordoa etorri zen, eta bi txanda egin behar izan zituzten GOITB, Arrasate Irratia eta ARRASATE PRESS ikusteko. Badirudi ikasle gazteak gustura geratu zirela hemen ikusitakoarekin. Haien irakasleek ere lan ederra izan zuten ikasle guztiak kontrolatzeko, izan ere, bat baino gehiago...



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza. Lorazaintzako mantenimendua orohar. Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



FUTBOLA

# Mondrak Ilintxaren aurka jokatuko du zapatu arratsaldean Atxabalpen

Raul Leibaren mutilek hiru eta bat irabazi zuten joan den zapatuan Soraluzeren kontra

XABIER URZELAI

**Erregional mailako futbol taldea joan den zapatuan eskuratutako garaipena errepikatzen saiatuko da. Arerioa gogorragoa izango da, baina etxeokak gai dira maila horretako edozein talderi gailentzeko.**

Mondra futbol taldearen alde on eta txarra bizi izatea tokatu zaigu orain arte. Jokatu dituzten hamaika partiduetatik arrasatearrek gehiago galdu dituzte irabazi baino, baina irabazitakoak, nagusitasun eta joko onez.

Joan den asteburuan, Mondrak Soraluzeren kontra jokatu zuen, eta etxeokak alde ona erakutsi zuten. Lehenengo zatian arrasatearrak izan ziren jaun eta jabe, eta 45 minutu nahiko izan ziren etxeokak hiru gol egiteko.

Golak Ekainek, Asierrek eta Muxik egin zituzten, eta hirurak ere zein baino zein ederragoak izan ziren. Azken jokalaria hau izan zen, onerako eta txarrerako,

partiduko protagonista. Gol bikain bat egiteaz gain, penalti baten etxeokoen laugarren gola egiteko aukera izan zuen Muxik, baina ez zuen asmatu. Txarrena gero etorriko zen; izan ere, epaileak kanporatu egin zuen eta Mondrak hamar jokalarirekin amaitu behar izan zuen partidua.

Penalti baten edozeinek egin dezake kale, baina epaileekin kontu handiz ibili beharko dira jokalaria, horrelako kontuek kalte handia egiten diote-eta taldeari.

## ZAPATUAN ILINTXA

Arrasateko taldeak Ilintxaren kontra jokatuko du zapatu arratsaldean. Partidua arratsaldeko hiru eta erdietan hasiko da, eta arrasatearrak bi taldeen artean dagoen tartea murrizteko asmoz zelairatuko dira. Etxeokak hamabigarrenak dira 13 punturekin, eta Ilintxa, berriz, zazpigarren postuan dago 18 punturekin. Hala eta guztiz, sailkapenari begiratzea alferrikakoa da, lasai lan egitea da egokiena.



Mondra futbol taldeak bat eta hiru irabazi zuen joan den astean Soraluzeren kontra.

## Arrasateko Errugbi Taldeak irabazi egin zuen Gasteizen

XABIER URZELAI

Azaroko elurteen ondorioz, Gaztediren kontra jokatu beharreko partidua atzeratu egin zen, eta joan den asteburuan jokatu zuten. Arrasateko Errugbi Taldeak 15 eta 17 irabazi zuen Gasteizen, eta bi puntu oso garrantzitsurekin

buelatu zen Arrasatera. Partidua azken minutuetan erabaki zen, arrasatearrek azken minutuetan egindako bi entseguri esker irabazi zuten-eta. Taldea bikain ibili zen, baina norbait aipatzekotan, Zumbeltz Arana, Jon Baltzategi eta David Jauregi izan ziren erabakigarrienak.

## UDAK eta Aloña Mendik Atxabalpen jokatuko dute domeka arratsaldean

XABIER URZELAI

Oraingo domekan, preferente mailako partidua jokatuko da Atxabalpen. UDak ezin du bere futbol zelaian jokatu, Gure Txokoa taldearen kontra jokatu zutean izan ziren istiluengatik.

Horrenbestez, Aloña Mendiren eta Aretxabaletaren arteko derbya Mondraren futbol zelaian jokatuko da domekan, arratsaldeko hiru eta erdietatik aurrera.

### UDA FAVORITO

Aretxabaletako taldea favorito

da nahiz eta azken lau partiduetan ez duen partidurik irabazi. Aretxabaletakoek joan den asteburuan ere derbya jokatu zuten Bergararen kontra, eta 2 eta 5 galdutuz. Oñatiko taldeak, bestalde, 5 eta 1 irabazi zion Beti Onari, baina oso talde gaztea da hura.



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismokak

- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

PILOTA

## Belokik partidu ona eginez irabazi zion jokoan sartu ez zen Unanueri

Mikel Unanue ez zen fin ibili, eta aukera izan zuenean barkatu egin zuen

XABIER URZELAI

Arrasateko pilotazaleek berehala ulertu zuten zapatu-koa ikusteko partidua zela, eta Uarkape pilotalekua bete egin zen. Jokoan lau t'erdiko finalerdietarako txartela zegoen, eta bi pilotariak ondo ezagutzen zuten elkar. Belokik aspaldi ez bezala jokatuz irabazi zuen.

Arrasaten egin zen pilota jaialdian Ruben Beloki izan zen protagonista nagusia. Bi pilotariak ere punta-puntakoak ziren, baina nafarra gipuzkoarrari nagusitu zitzaion. Burlatakoak hasieratik erakutsi zuen aurreko partiduetako joko kaskarra ez zela berriro errepikatuko, eta hasiera-hasieratik aurre hartu zuen. Belokik gauza gutxi egin zituen gaizki: sakean bikain ibili zen, eta ezker-eskuinez pilota gozatu egin zuen.

Mikel Unanue batera eta bestera ibili zen. Aurrelaria izanik, airez izan zituen pilotak ez zituen aprobeztatu, eta tantoren bat egiteko aukera garbia izan zuenean barkatu egin zuen. Hori bai, arriskatzea tokatzen zitzaionean, hala-



XABIER URZELAI

Beloki aspaldiko partidurik onena jokatu eta Unanueri nagusitu zitzaion.

xe egin zuen, eta tanto politik egin zituen, nahiz eta pilota asko txapa behera bidali. Azkenean, 22 eta 15 Belokiren alde.

### EUGI-BELOKI FINALERDIETAN

Ruben Belokik zapatuko partidua irabazi eta finalerdietan zeinen kontra jokatu behar zuen jakitea baino ez zen geratzen. Bi aukera

ziren: edo Eugi, edo Otaegi. Bi hauek Astelena pilotalekuan jokatu zuten, eta azkenean Eugi nagusitu zen.

Otaegik sekulako partidua egin zuen, baina Eugi beterranoa da txapelketa honetan, eta Agoizkoa 22 eta 16 nagusitu zen. Finalerdietan Eugi eta Beloki izango dira aurrez aurre.

## Kenci Arrasate taldeak domekan eta martitzenean jokatu beharko du

XABIER URZELAI

Arrasateko saskibaloitza taldeak irabazi beharreko bi partidu jokatu ditu domeka eta martitzenean. Domeka goizean, Padura taldearen kontra jokatu dute. Partidua kanpoan izango da, Arri-

gorriagan, eta hasiera baten arrasatearrak dira faborito.

Martitzenean, ordea, etxekoek Loiola Indautxu taldearen kontra jokatu beharko dute. Partidu hori joan den asteburuan jokatu behar zuten, baina bilbotarrek partidua atzeratzeko eskaera egin

zuten, eta martitzenean jokatuko dute.

Partidua arratsaldeko zortzi eta laurdenetan hasiko da, eta etxekoek gogotik izerditu beharko dute bilbotarrei euren kantxan irabazteko. Azkeneko aukera izan daiteke.

ZALDIBAR

## Oraingo asteburuan, zubia dela-eta, ez da Zaldibarko Txapelketako partidurik jokatuko

Oraingo asteburuan, ez da Zaldibarko Txapelketako jardunaldirik izango. Jendeak zubiak kanpora joateko aprobeztatu dituzte, eta ezinezkoa izango litzateke oraingo asteburuan partiduak normaltasunez jokatzea.

Joan den asteko ARRASATE PRESSen, Zaldibarko orria ez zen asteburuari zegokiona, hilaren 10 eta 11ko taulak azaldu zirenetan. Oraingoan guk egin dugu kale, eta aste honetako beheranzko gezia ARRASATE PRESSendako izango da. Barkatu eragozpenak.

ESKUBALOIA

## Arrasate Almenek esperientzia faltagatik galdu zuen Hegialde taldearen kontra

Bernardo Balerdiren mutilek aurrerapauso galanta egiteko aukera izan zuten joan den domekan jokatutako partidua irabazi izan balute. Hala ere, Legazpiko Hegialde taldeak ez zizkion gauzak batera erraz jarri, eta azken minutuetan erakutsitako trebeziari esker puntuak kanpotarrek eraman zituzten.

Arrasateko taldeak bihar, eguena, jokatuko du Bergararen kontra. Domekan, berriz, Bernardo Balerdiren mutilek Leitzaran taldearen kontra jokatuko dute. Partidu biak kanpoan izango dira.

SASKIBALOIA

## Junior mailako nesken taldeak 35 eta 47 irabazi zion Internacional B taldeari

Arrasate Saskibaloitza Taldeko neskek garaipen garrantzitsua eskuratu zuten joan den asteburuan Donostiako Internacional B taldearen aurka. Guztira, 10 neska joan ziren Donostiaraino, eta puntu gehien Erika, Aitziber eta Ane jokalariek egin bazituzten ere, jokalariek guztiek egin zuten saskiratzeren bat.

Etxeko neskek seigarrenak dira, eta Oñatiko neskek bosgarren daude puntu berekin. Oraingo asteburuan, atsedean hartuko dute, eta hurrengo partiduan oñatiarrak izango dituzte aurkari.

XAKEA

## Arrasateko xake taldeak bikain dabilta: nagusiak lidertzan, eta besteak igoera fasean

Arrasateko San Andres Xake Taldea lan bikaina egiten ari da. Gipuzkoako Ligan dagoen taldea liderra izaten jarraitzen du, joan den asteburuan Villabonakoei 3 eta 1 irabazi eta gero. Etxekoek oraingo asteburuan atsedean hartuko dute, eta hurrengoan, Zarautzen kontra jokatuko dute; partidu gogorra izango da.

Lehen mailan dagoen taldeak 2 eta 2 egin zuen Goierriren aurka; datorren denboraldian Gipuzkoako Ligan jokatu ahal izateko igoera fasean dihardu taldeak. Bigarren mailan dauden arrasatearrek ere lehen mailan jokatzeke igoera fasean dihardute, nahiz eta joan den asteburuan galdu.



# LASAGABASTER

# Arrasateko Euskal Kulturaren Azokak berritasunak ekarriko ditu

IKER BARANDIARAN

**H**erriko zenbait elkartek Arrasateko Euskal Kulturaren Azoka antolatuko dute. Abenduaren 21etik 24ra arte iraungo du eta hainbat berritasun izango ditu.

Urte askoan, Arrasaten euskal liburu eta disko azoka egin izan dute Seber Altube plazako egoitza baten. Hasiera baten, AEDk hartu zuen lan horren ardura. Gerora, Txatxilipurdi jaio eta elkarte horrek hartu zuen antolatze lana. Hamarkada bat pasatxotik hona, urtero-urtero, egin da azoka, iaz atseden hartu zuten arte.

Aurten, Txatxilipurdiko eta AEDko partaideek hausnarketa egin eta herriko beste talde batzuei ere deialdia egin diete egitasmo horretara batu daitezten. Azaro hasieran batzarrak egiten hasi ziren, eta bi talde horiez gain, Margo Taldea, Zeramika Taldea eta Taila Elkarteak ere batu ziren azoka antolatzeko.

Aurtengo azokaren koordinatzaileak, Eider Otxoak, azaldu digu azokak berritasun garrantzitsuak dauzkala aurrekoekin alderatuta: "Alde batetik, antolatzaile gisa talde bakarra egon beharrean zenbait talde gabiltza; eta bestetik, herritarrek ere protagonismo handiagoa edukitzea gura izan dugu. Hori dela eta, herriko artista, artisau eta musika taldeei ere gonbita egin diegu, euren produktuak azokara ekar ditzaten. Egia esatearren, azoka honek aldaketa txiki baten beharra zeukan, eta beste apustu mota bat egitea erabaki dugu antolatzaileok".

## KOKAGUNE BERRIA, HELBURU BERA

Aurten ere, Seber Altube egingo da azoka, baina aurreko urteetan ez bezala, frantziskotarren egoitzatik kanpo egingo dute oraingoan. Eta hala, aurtengo kokagunea Seber Altubeko ludoteka izango da. Han egongo dira erakusgai eta salgai ume, gazte zein helduagoendako liburu, disko, aldizkari, bideo, CD-ROM, arte-lan, taila-lan, artisau produktu eta beste ekoizpen asko. Abenduaren 21ean azoka zabaldu eta 24ra arte biak barne zabalik egongo da,



ARTXIBOA

*Liburu, disko, bideo eta CD-ROMez gain, artista eta artisauen lanak egongo dira*

eta egunaren arabera ordutegia aldatu ahal izango da.

Kokagunea aldatu bada ere, helburuek bertsuak izaten segitzen dute. "Gure helburu nagusia euskarazko kultura materiala eskuragai jartzea da, eta aurten, gainera, herritarren parte hartzea areagotu gura izan dugu, beste esparru batzuk ere zainduz", azpimarratu zuen Eider Otxoak.

Eider Otxoak aurreratu digu abenduaren 21etik 24ra Seber Altubeko ludotekan azoka egiteaz gain, azokarekin batera emankizun batzuk ere antolatzeko asmoa dutela. Eta oraindik guztiz zehaztu barik dituzten arren, ume zein nagusiagoei zuzenduta

*Euskal kultura eskuragai jarri eta herritarrek inplikatu dituzte*

egongo direla esan zigun.

Bestalde, azokako saltokietan lan egiteko taldea osatzen dabil-tza, eta, batez ere, artisau eta artistak bai eta AEK zein herriko eskoletako irakasleak arituko ei dira.

Betiko arazoari dagokionez, hau da, lekuari dagokionez, gaineratu zuen oraindik ez dakitela lekuz mugatuta egongo diren. "Aurtengo azokaren erantzunaren eta emaitzaren zain geldituko gara, eta ikusiko dugu aurrerantz zer egin. Egia da leku apropos baten falta betiko kontua dela, eta emaitzen arabera leku handiagoa bilatzen ahaleginduko gara, edo Udalarekin lankidetzan aritu".

## KULTURAPILULAK

### Bedoñako jaiak izango dira asteburuan, eta egitarau zabala prestatu dute auzokideek

Abenduaren 7tik 9ra Bedoñako jaiak ospatuko dituzte auzokideek, eta egitarau zabala antolatu dute. Egubakoitzean, 19:00etan etxafuegoak eta Loramendi elkarteko luntxa izango dira. Gero, zapatu goiza umeendako izango da: 10:30ean, Txakur beltz eta iletsua antzezlanak, ume jolasak eta Eriz magoa egongo dira. Bazkal ostean, Gorritiren animaliak, txokolate-jana eta gazte erreak. Iluntzean, musa eta briska, auzo afaria eta dantzaldia. Domokan, salda, dokea, meza eta dantza Lore Gazteak-en eskutik.

### San Nikolas Eguna ospatuko dute bihar kalerik kale eskola guztietako umeek

Antzinako usadioei jarraituz, bihar, San Nikolas Eguna ospatuko da Arrasaten, oso herri gutxitan moduan. Eta ohiturei uko egingo da, eguerdiko 12:00etan eta 12:30ean, goxoki eta bestelako bolosak egingo dute Udaletxeko balkoitik San Nikolas abestera eta turatuko diren umeendako. Udaletxe azpian moduan, zaurkeria eta hainbat eta hainbat kaletan ikusiko ditugula eskola guztietako umeek kantuan, norik zer botako zain, urtero legez. Tradizioa eutsi egin behar zaie eta guk ere bota egin beharko diegu zerbait.



Irudian, Gizabide Fundazioako arduradunak sari banaketan.


## On Jose M<sup>a</sup> Arizmendiarieta lehiaketako sari banaketa

IKER BARANDIARAN

**Gizabide Fundazioak urtero antolatzen duen Jose Maria Arizmendiarieta lehiaketak hamabosgarren aldian bete du, eta On Jose Maria hil zeneko 25. urteurrenean irabazleak ezagutu genituen.**

Gizabide Fundazioak duela hamabost urtetik hona, urtero, antolatzen duen Jose Maria Ariz-

mendiarieta Lehiaketaren irabazle bazleen berri eman zuen jokoan eguenean. Lehiaketako irabazlearen sari banaketa ere egin zuten Gizabide Fundazioak duen egoitza bertan. Euskal Herriko lehiaketa bat ikastetxetako ikasle talde bati aurkeztu dituzte euren lanak, eta lehiaketa guztira. Aurtengo lehiaketako berritasun nagusi gisa, lehiaketa leke kartel formatuan ere aurkeztu dituzte lanak. Bestela, 2002an ez da lehiaketarik egin.



# Danona

## KARROZERIAK

### Konponketak txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

## JEMI TAPIZ DENDA

- Altzarien konponketa eta tapizaketa
- Ibilgailuen tapizaketa
- Sofa-zorroak neurritan

Lantegia: Errebuelta, 6 behea  
Tel.: 943 79 56 23/606 88 33 38  
20500 ARRASATE

## ASESORIA ARRASATE

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale, 32. 1 ezk • ARRASATE  
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00

ZAHARRENETXETIK



IKER BARANDIARAN

Poz-pezik jaso zuten omenaldia Iturbideko berrogeita lau gizon-emakumek. Irudian, haietako batzuk.

# Laurogeita hamar urte baino nagusiagoei omenaldi xumea

IKER BARANDIARAN

Urteroko ohiturari uko egin barik, Iturbideko zahar egoitzako batzarrak omenaldi xumea egin gura izan zien Iturbideko bazkide diren 90 urte baino nagusiagoei. Horretarako, aurrez gutun bana etxera bidali, eta egoitzatik bertatik opariak jasotzeko igaro zitezen gonbidapena egin zien batzarrak.

Ezagun da zaharrenetako batzuek osasun kontuak dituztela eta etxetik irteteko gogo handirik izaten ez dutela. Horrexegatik, haien ordez senitartekoak joan ziren, zegozkien opariak jasotzeko. Hala ere, askok eta askok, sasoi galanta erakutsiz, egoitzaraino jo zuten opariak jasotzera goiz-eguerdi partean.

Guztira, berrogeita lau lagunek izan zuten merezitako omenaldia. Horien artean, hogeita hamabi emakumek eta hamaika gizonezkoak. Nagusiena, Isabelle Pinacho, aurtan 101 urte bete dituen.

Omenduek poz-pezik hartu

zituzten opariak, eta guk daki-gula, inork ere ez zituen opariak han zabaldu. Dagoeneko zabaldu eta erabiliko zituzten; hortaz, orain esan dezakegu zer jaso zuten benetan: kolonia, perfume, desodorante eta bonboi kaxa dotore bana, hain zuzen ere. Ziur poz-tuko zirela etxean zabaldu

zutenean!

### MEREZITAKO OMENALDITXOA

Abaroako zahar egoitzako presidente Rosaliok zera azpimarratu gura izan zuen: "Gaur omendu ditugun lagunek sortu zuten zahar egoitza hau, eta gure babesa eta errekonozimendua merezi dute. Omenaldi hau baino gehiago egin beharko genieke".

Une hunkigarriak nagusitu ziren Iturbideko zahar egoitzan goiz-eguerdi osoan, omenduek asko poztu ziren eta opariak jasotzean. Horrez gain, ARRASATE PRESSko argazkilariaren eta Goiena Telebistako kameraren aurrean gustura asko agertu ziren.

Horra hor, esaterako, opariak jaso berri argazkian harpatu genituen hainbat lagun: Carmen Lamarain, Vicenta Pagoaga, Anttoni Jauregi, Maria Mondragón eta Eusebi Sanmiguel. Bostak ere 90 urte baino gehiagokak, eta elegante-elegante jarri zitzaizkigun kamera aurrean. Ondo jarraitu!

## Aitzindarietako batzuk bertan

Omenaldira joan zirenen artean, aurtengo apirilean 90 urte egin dituen Juan Pedro Azkoaga ere izan zen. Juan Pedro Arrasateko erdialdeko zahar egoitza eratu zeneko aitzindarietako bat da. Hark adierazita-koaren arabera, duela 29 urte inguru hasi ziren Pablo Urangan, eta Abaroa izena Jose Luis Iñarrarekin berbetan atera zuten.



### Iturbideren hazia erein zutenak tartean

Iturbide egoitzan 90 urte edo gehiago dituzten bazkideei egingako omenaldian aspaldiko ezagunak ikusteko parada ere izan zen. Horien artean, duela ia 30 urte Pablo Urangako zaharren egoitzako batzarrean lanean ibilitako Juan Pedro Azkoaga bera. Ondo baino hobeto gogoratzen du Juan Pedrok tabernari izena jartzeko orduan Jose Luis Iñarrak lagundu ziola. /I.B.

### ZAHARRENAHOTIK

## Leonor Gutiérrez 'Casera'

ERRETIRATUA

Leonor Gutiérrezek 91 urte ditu, eta sasoi onean dago. Seguruenik, bizi izan dituen pasarteek gogortu egin dute emakume indartsu hau.

### Leku askotan bizi izan zara...

Bai. Burgosko Palacios de Benaberren jaio, baina oso txikitari Bizkaira jo genuen. Zortzi urterekin Sudupeko Conchita Hilados y Tejidos enpresan lanean hasi nintzen, 19 urte arte. Gero, Arrasaten Garciaarrenean morroi ibili, eta 23 urterekin Bilbora jo nuen; han ezkondu nintzen. Gerra hastean, senarra Santoñan kartzelan sartu zuten eta ni errefuxiatuen ontzi baten Normandiara joan nintzen. Gero, Bilbora bueltatu, eta ordurako etxe eta ondasun guztiak konfiskatu zitzaizkiguten.



### Eta Arrasatera bueltatu zinen, ezta?

Bai, Bilbon ezer barik utzi gintuztenez, neu eta geroxeago senarra hona etorri ginen. Guardia Zibilak espioia nintzelakoan susmagarritzat hartu ninduen. Bost seme-alaba nituen. Alargundu eta Elman hasi nintzen lanean.

Garagardo ona, giro hobea



**TXIRRITOLA**

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

**HIES  
BERRI**

Tel.: 943 79 26 99



**ALDEDI**  
MARKO-JARTZEAK

Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

## GOIKO LANDETXETIK

## Igor Ezpeleta Laskurain

## ARTEAGA LANDETXEKUE

XABIER URZELAI

Igor Ezpeleta eta Mainer Larrañaga bikotekidiek Arteaga landetxe zabaltu berri dau, eta bixek be ez daue lo askorik egin azken egunotan. Azkenien, Igorrei tokau jako honei galderoi erantzutiek, baiñe gustora egon dala esango neuke. 26 urteko mondragoetarra, Ostalaritza ikasi euen Igorrek.

## Amets bat?

Bizitza normal bat euki eta osasunakin bizi izetie (Eta landetxe aurrera ataratie).

## Amets txar bat?

Bakarrik geldiketie.

## Egin dozun azken biak?

Thailandiara, oin dala urte bi.

## Txartel horixe, zeñei?

Gerrara jueten dienei.

## Eta gorrix?

Gerrara jueteko aginketan dauenei.

## Pelikula bat? Liburu bat?

## Disco bat?

*El sexto sentido / Los Pilares de la Tierra / Musika euskaldune.*

## Drogak legalizauko zittukie?

Danak ez, baiñe batzuk bai.

## Eta prostituziñue?

Kontrola egon ezkerro, bai.

## Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Tabernetako txikiteue.

## Ze gustetan jatzu Mondragoetik?

Baserri auzuek: Bedoña, Udala, Garagartza...

## Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Batez be, aparkalekuen eta zirkulaziñuaren arazuek..

## Eta lehendakari izengo bazitze?

Euskal Herriko egoerie aurrera ataraten saiatuko nitzake.

## ARRASATE PRESS barrixe gustau jatzu?


Bai, eta asko, gainera.

## Ezagutu dozun pertsona interesante bat.

Ba.. ez dakit ze erantzun.

## Eta ezagutu nahiko zeunkeena?

Jente asko.



X.U.

*"Lan honetako gauza polittena da egitten dien platerrekin jentie gustora geraketie"*

## Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Hori erantzutiek peligrasue da.

## Telebisiñoko programa bat?

## Eta irratikue?

Gehixenbat kirolak ikusten dittut / *La movida deportiva.*

## Lagun on bat inbitau ezkerro, ze eskeiñiko zeuskio?

Afari tradizional bat: bakallau apur bat, txuletaren bat... eta goiko gelan gaba pasetie.

## Lanien ze da gehixen gustetan jatzuna?

Egitten dittugun platerrekin jentie gustura geraketie.

## Eta gutxien?

Lan honen ordutegixe, eta zerbitzuetako estresa.

*"Lagun bat inbitau ezkerro, afari tradizionala eskeiñiko neuskio, eta gela bat goixen"*

## Ostalari ez bazitze, ze izengo zitzake?

Futbolista.

## Mondragoetik etorteko, Udalatik ala Garagartzatik hobeto?

Geletan bi ohe dagoz, ez da egokixe bikotekidiakin gau erromantiko bat pasetako, ala?

## Ez, baiñe erdiko mesillie kendu eta ohe bakarra egin leike.

## Hamengo gauza onena parajie dala esango banutzu, zein izengo litzake erantzune?

Etxie ederrague dala.

## Izotza egitten dauenien, zelan konponduko zarie hona igo eta hamendik jeisteko?

Gatza bota biherko dogu.

## NIRE BIDAIA HURA / Garikoitz Heriz Arana

## Txekiar Errepublikara / 2000ko abuztuan

Garikoitzek Europan zehar ibiltzeko aprobetxatu ditu azken abuztu biak. Aurten, furgoneta bat alokatu eta Frantzia, Suitza, Austria eta Alemania bisitatu ditu beste hiru lagunekin.

Hala ere, urtebete egingo dugu atzera; izan ere, joan den urteko abuztuan egindako bidaia kontatzea erabaki du. Ez du arrazoi berezirik. Aurten, paraje ikusgarriagoak ikusi ditu, Suitza aldean, batez ere, baina historia kontuak atsegin dituenek, bere ustez, joan den urteko bidaia aberasgarriagoa izan zen. Abuztu hasieran irten ziren Aimar, Aitzol, Aitor, Jon eta Gari. Bidaia ondo prestatua zeukaten, ehun mila pezeta baino gehiago gastatzeko asmorik ez zuten-eta. Biarritzeraino autoz joan eta gero, hegazkina hartu eta Parisa iritsi ziren, handik Pragara joateko. Hango autobus geltokian Cesky Krumlov hirirako bidea hartu zuten. Irtsi zirenerako berandu zen lo egiteko lekua topatzeko. "Parkean afaldu eta han bertan egin genuen lo. Gau hartan, mozkor bat zebilen handik, eta pertsona bati kolpe bat jo eta gero, sekulakoak jaso zituen. Polizia etorri zen lekutik joan zen".

Garikoitz Praga eta Cesky Krumlov hiriak gustatu zitzaizkion. Azken hura, batez ere. "Hiri hark Erdi Aroko kutsua dauka eta ikusgarria da". Horrez gain, Garikoitzek oso argi dauka Txekiar Errepublikatik zer azpimarratuko lukeen. "Hasteko, oso merkea da, eta horrez gain, munduko garagardo onena dago han-txe". Ez dira arrazoi makalak. "Gainera, bisitatzeko oso leku aproposa da, izan ere, II. Mundu Gerrak ez zuen eragin handirik izan han, eta monumentuak oso egoera onetan daude". Europan zehar ibili eta gero, Garikoitzek argi dauka gauza bat: "Hemen bezala, inon ere ez!".


XABIER URZELAI



Cesky Krumlov-eko gaztelua, Txekiar Errepublikan.

*"Txekiar Errepublikako garagardo onena da munduko onena"*

*"Argi daukat, Euskal Herrian bezala, inon ere ez"*



Salmenta eta zerbitzua

## IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

## "PAL"

burdindegia,  
brikolage  
eta tresneriaUribarri etorbidea, 3  
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



ARRASATE  
**Agustin Arantzabal**  
Azaroaren 20an, 50 urte.  
Zorionak eta urte askotarako! Etxekoen partetik!



ARRASATE  
**Andoni Iria**  
Abenduaren 7an, 9 urte.  
Zorionak eta urte askotarako! Etxekoen partetik!



ARRASATE  
**Ane Osinaga**  
Abenduaren 1ean, 15 urte.  
Zorionak, Aramaixoko koadriaren partetik.



ARRASATE  
**Joxe Miel Gaztelu**  
Azaroaren 25ean, 50 urte.  
Zorionak! Zure Arrasateko "senideak".



ARRASATE  
**Iñigo Cariñanos**  
Abenduaren 10ean, 4 urte.  
Umezaintzako laguntzaren partetik, zorionak!



ARRASATE  
**Jasone Giraldo**  
Abenduaren 12an, 32 urte.  
Urtzi, Pello eta Txaxilin partetik, zorionak!



ARRASATE  
**Kontxita Etxebarria**  
Abenduaren 6an urtebetetzea. Zorionak, gazte! Familixien partetik.



ARRASATE  
**Leire Lardizabal**  
Abenduaren 6an, 22 urte.  
Zorionak eta urte askotarako!! TMT.



ARRASATE  
**Marta Zubizarreta**  
Abenduaren 4an, 28 urte.  
Zorionak! Telexkako partetik.



ARRASATE  
**Andoni Bragado**  
Abenduaren 3an, 23 urte.  
Zorionak eta urte askotarako! TMT.



ARRASATE  
**Markel Elortza**  
Abenduaren 3an, 20 urte.  
Zorionak, mutill! Etxekoenak.



ARRASATE  
**Mikel Agirre**  
Abenduaren 10ean, 2 urte.  
Zorionak Jon eta Iker lehen-gusuen partez.



ARRASATE  
**Izaskun**  
Abenduaren 4an, urtebetetzea. Berandu baina seguru. Zorionak!!



ARRASATE  
**Iban Okina**  
Abenduaren 5ean, 27 urte.  
Zorionak eta urte askotarako!! Lagunak.

## Adi!

Hurrengo zenbakian **abenduaren 6tik 14ra** bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu.  
**Argazkiak martitzenera arte jasoko dira ARRASATE PRESSKO egoitzan.**


### BABESLEA

# Juan Manuel Berrueta

ARGAZKILARIA

- Estudioa
- Erreportajeak
- Bideoa
- Argazkizaleen txokoa

Iturriotz kalea, 24. ARRASATE. Tel.: 943 79 19 71 / 658 75 58 18.




## Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.

Zatoz Arrasate Pressera argazki batekin eta utzi gure esku!  
Otalora lizentziaduna, 31.

## "...eta Santamasetan nola jantziko zara?"

Hitzaldia

**Gaia:** Garai batean Euskal Herrian erabiltzen zen ohiko jazkera aurkeztuko digute, Santamasetan jatzeko aproposa izan daitekeena.


**Emalea:** Ikerfolk

**Noiz:** Abenduaren 12an, asteazkena, arratsaldeko 19:30etan.




**Non:** Elkartearen egoitzan, Pablo Uranga 4 behean (Arrasate).

**Informazioa gehiago:** Elkartean bertan edo 943 77 12 28 / 610 04 24 39 telefono zenbakietan.

Antolatzailea:



Laguntzaileak:

# Txirritola

ARAMAIO / Egubakoitza / 2001eko abenduaren 5a / 7. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna, z/g 2500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

## Tamaina handiko zaborren gainean zenbait abisu herritarrei

UBANE MADERA

Tamaina handiko zaborrak direla-eta, Udalak zenbait abisu eman gura dizkie herritarrei. Batetik, gogorazi gura du mota horretako zaborrak ateratzeko eguna eguen ilunkera izaten dela (orain dela hilabete batzuk aldatu zuten). Eta Gabonak direla-eta, zenbait aldaketa izango dira.

Egun bereziak izango ditugu hurrengo asteotan. Eta horrek herriko zerbitzu askotan du era-

gina. Horixe pasatzen da tamaina handiko zaborrekin, adibidez. Izan ere, Gabonetan egun bereziak ipini dituzte horrelakoak batzeko. Hiru egun izango dira: abenduaren 20a, urtarrilaren 17a eta urtarrilaren 31. Hiru egunak eguenak dira, ondorioz, betiko moduan, bezperan (eguzten ilunkeran) atera behar dira kalera tamaina handiko zaborrak.

Edozelan ere, herriko Udalak gogorazi gura die herritarrei tamaina handiko zaborrak ateratzeko eguna, berez, hileko azkeneko egun ilunkera dela. Gero,

egubakoitzetan batzen ditu Onaindia enpresak.

Lehen ez zen horrela; hileko azkeneko eguzten ilunkeran atera beharra izaten zen, baina orain dela hilabete batzuk aldatu egin zuten eguna, eta ordutik hona egun bat geroago atera behar da tamaina handiko zaborra kalera. Hortaz, eta nahiz eta datozen asteotan zerbitzua berriro ere eguenetan izango den, otsailetik aurrera egubakoitzetan jasoko dute.

### DENA BATERA EZIN DA ATERA

Eta, bestalde, Udalak gogorazi gura du ez dela komeni herritar bakar batek tamaina handiko zabor mordo ateratzea. Adibidez, ganbara garbitzea erabaki eta ganbarako traste guztiak batera ateratzea. Izan ere, hori horrela eginez gero, herritar bakarraren zaborrekin beteko litzateke kamioia. Eta gogoratu beharra dago herri guztirako zerbitzu bakarra dagoela. Hortaz, gauza mordo izanez gero, poliki-poliki joan behar da ateratzen.

Tamaina handiko zaborren barruan altzariak, txatarra eta horrelakoak botatzen dira, ohiko edukiontzietara bota ezin daitezkeenak. Esandako moduan, hilean behin batzen dira.



UBANE MADERA


Gabonetan mota horretako zaborra batzeko egun bereziak ipini dituzte.



ARRASATE  
ARETXABAETA  
ESKORIATZA  
LEINTZ GATZAGA

## Aramaiok ere izango du 2001eko gida

Datorren urtean Aramaiok ere izango du herriko telefonoen gida. Inguruko herrietan aspalditik egiten da, herriko aldi-kariaren bitartez. Ondorioz, datorren urtean, *Goienkaria* jasotzen duten aramaioarrek ere jasoko dute. Herriko telefonoe-kin batera, Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaeta eta Arrasatekoak izango dira. Urtarril bukaera eta otsail hasiera bitartean banatuko dute gida; *Goienkaria* banatzen den moduan: etxebizitza, denda eta tabernetan, doan. Guztira, 12.500 ale banatuko dituzte, eta horietatik 500 izango dira Aramaiorako.

OPEL 

# Zatoz

urte bukaerako

# deskontuak

aprobetxatzera!\*

\*500.000 pezetarainoko deskontua, modeloaren arabera. Gaurtik bertatik hasita, bi urteko bermea km mugarik gabe.

ZERBITZU OFIZIALA

Araba etorbidea  
943 77 30 10  
ARRASATE

**TAKOLO AUTOAK**

**TALLERES OLA**

KONTZESIONARIO OFIZIALA

Olabarrena auzoa  
943 76 33 44  
BERGARA



## TELEFONO JAKINGARRIAK

**OSASUNA / LARRIALDIK**

Osasun etxea (txandak) . . . . .	945 44 53 40
Botika . . . . .	945 44 50 03
Udaletxea . . . . .	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate) . . . . .	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio) . . . . .	945 45 52 52
San Martin Eskola . . . . .	945 44 50 04
Taxia eta autobusak . . . . .	945 44 50 33
Udal kiroldegia . . . . .	945 44 53 35
Postetxea . . . . .	945 44 50 83
Zulako Eskualdea . . . . .	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga) . . . . .	943 78 28 00

## AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

## LABUR

### HERRIKO GIZONIK ZAHARRENA

Joan den azaroaren 28an, Aramaioko gizonik zaharrena hil zen: Justo Ibabe Zubizarreta. Eguzkierripa auzoko Ibabe baserrikoa zen Justo Ibabe, eta 90 urte zituela hil zen gaitoxotasunak jota. Goian bego.

### KIROLDEGIKO LANAK

Orain dela aste bi kiroldegiko aldageletan lanak egiten hasi ziren. Lurra aldatu eta bestelako konponketa txiki batzuk egin dituzte (ateak, dutxen altuera...); eta aurreikuspenen arabera, datorren astean bukatuko dituzte.

Bestalde, Gabonak baino lehenago Andra Mari ermitaren ondoko aterpearen teilatua konponduko dute, komunak dauden lekuko teilatua, alegia. Uztaile aurretik komunak hustubideak konpondu zituzten.

### OSASUN ETXEA ITXITA

Datozen abenduaren 24an eta 31n, Aramaioko osasun etxea itxita egongo da. Ondorioz, larrialdiren bat izanez gero, Arrasateko zerbitzura jo beharko da, 09:00etatik 14:00etara. Eta 14:30etik aurrera Eskualdeko Ospitalera jo beharko da.

## KULTURA

### Aurreneko aldiz, Aramaiok bere lekua izango du Durangoko liburu eta disko azokan

Aurten, Durangoko liburu eta disko azokan Aramaiotik eramandako sei liburu izango dira: *Aramaioko joko eta jolasak*, Sagitario lehiaketan hiru urteotan irabazle izan diren hiru liburak, Aramaioko lore jokoen liburu eta tolerantziari buruz beste udal batzuekin batera lankidetzan argitaratu duten beste liburu bat.

Hain justu, Badihardugu elkarteak izango duen salmahaian eskuratu ahal izango dira Aramaioko liburuak, han egongo dira eta Deba ibarreko gainerrako udaletako argitalpenak.

Lehenengo aldia da Aramaiok Durangoko disko eta liburu azokan parte hartzen duela.

Durangoko azoka gaur zabaldu dute eta domekara arte iraungo du.



### HERRITARREN HITZA / Julen Arriolabengoa • Filologoa

## Aramaioko historian arakatzeko: musulmanen bisita

Zaila da jakitea musulmanak Euskal Herrian noraino iritsi ziren, baina ziurtzat jo daiteke Aizkorri eta Gorbeia bitarteko hegoaldeko lurretaraino iristea lortu zutela. Araban X. mendera arte ia eten gabe egiten zituzten sartu-irtenak, oso metodikoak, kristauen indarrak ahuldu eta haien errekonkista saioak atzeratu guran.

Erasoaldi horietako batean, 865. urtekoan, alegia, 20.000 zaldun zenbatu omen zituzten. Hortik atera kontuak norainokoa izan zitekeen garai haietan musulmanen indarra eta boterea.

Azkartasuna eta ankerkeria izaten ei ziren kanpaina haien berezitasunak: zaldien gainean arrapaladan agertu eta inguruko uztak hondatu

egiten zituzten, ganaduak akabatu eta eraikinak erre. Erasoei erantzun nahi zieten kristauen taldeak antolatu eta armatu orduko, musulmanak desagertuak ziren.

Fernando Zarate komendadore eta kronikariak XVI. mendeak idatzi zuen kronikan dioenez, Iñigo Aritza euskal lurretako errege zela (824-852), aipatutako sarraldi horietako batean musulmanek, Baxamelin izeneko buruzagi baten agindupean, Arabako lautada korritu ondoren, egundoko sarraskia egin omen zuten



**"Nire gustuko gauzak egiten, lan bihurtu zait"**

Aramaioko haranean, ondasunak lapurtuz, biztanleak erailez eta bazterrak errez. Segidan, Durango aldera abiatu ei zen musulmanen gudalozte herri hura ere sakeatzeko asmotan.

Baina, hantxe zain zituzten durangarrak, aramaioarrek

abisu eman baitzieten musulmanak zetozela. musulmanen bila aterata, euskaldunek Durango ondoko Tabirako lautadan egin omen zuten topo haiekin. Odoltsua izan omen zen oso bertan izandako gudua, eta durangarrek beste

### DONTXOREN ALABA

Legendei dagokienez, Dontxok bahituta eduki zuen alabaren istorioa dugu; honakoa benetan gertatu ei zen pasadizo baten gainean eraiki den istorioa. Dontxorenak ia lekuko gehien ahoztan izan dira.

Dontxo Aixolako Kantoi etxean bizi zen jauntxo bat zen. Haren alaba ederra mutil pobreakin maitemindu ei zen. Mutil haren jatorriaren gainean denetariko informazio jaso dugu: Gantzagako Urdungio baserrikoa zela, Etxango Albaro izeneko mutil bat zela, Gantzagakoa eta Patxi izeneko zela, eta abar. Hala ere, guztiak datoz bat pobrea zela esatean. Bikote hura Boluetako zubian, Urribarrin, elkartzen zen, Patxike Ibaberen eta Ines Beitiaren arabera; Konsuelo Salaberrik, ostera, Errotabarriko Urkulu aipatu zuen.

Santixau egun baten, aitak alaba mutil-lagunarekin ikusi ei zuen Gureia auzoan. Gau hartan bertan sartu zuen alaba etxeko zulo baten eta hantxe zazpi urtean eduki.

*Aramaioko Ipuin eta Legendak*

 **Gambrinus**  
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32

### ION LEHIOAK

Leihoak  
Ateak  
Horma armairuak  
Zoruak

Kanpantorrea, 2  
Tel./faxa: 943 79 11 35  
20500 ARRASATE

### UGARTE

Industria  
hornidurak

San Andres auzoa, 2. 5-6 Pab.  
Tel.: 943-71 21 41  
Faxa: 943-71 21 40



KONTRATAK  
**IRVROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14  
ARRASATE

## ERRETRATUZAHARRA

Baserritarren  
otordua *Re-Re*  
tabernan

Joan den astean, *Re-Re* taberna aitatu genuen, eta oraingo astean ere, taberna bera dugu aipagai. Izan ere, oraingo asteko erretratu zaharra, ustez, *Re-Re* tabernaren jangelan dago aterata. Gure berriemaileak ez daki zergatik, baina, egun hartan Arrasateko zenbait auzotako baserritar batzuk elkartu ziren otorduan. Hortxe daude, San Andres, Bedoña, Zaldibar eta Uribarri auzoetako zenbait baserritar, hain zuzen ere. Goitik hasita, ezkerretik eskumara, hauexek agertzen dira argazkian: Boliñete baserriko semea, Mendi baserriko semea, Andres Garai *Villa Bañez*, ezezaguna, Azua Azpiko baserrikoa, Gosamendiko Justo Arroiabe, Faustino Elkoro, Mendi baserriko beste seme bat eta Goiu eta Olan baserrikoak. Behean, berriz, ezkerretik hasita, hauexek dira: Manolo Garate, Jesus Etxaburu, Boliñete baserriko beste seme bat, Santamaña baserrikoa eta Villafreko semea.

Mahaian ikusten da ardoari



laguntzen sifoi botila bat ere bazutela gure baserritarrek. Izan ere, "orduan sifoi hemen bertako produktua zen. Etxe ilara bereko azkeneko eraikinean zegoen, hain zuzen ere, sifoi fabrika, *Martin Bixirena*". Sifoiak, gaseosa eta izotza bloketan egiten zuten: "Orduan hozkailu gutxi zego-

en" eta zeudenak borobilak ei ziren, gainera, "amerikarrek horrelakoak egiten zituztelako".

Bestalde, ezezaguna zen orduan *Re-Re* taberna herrian. Jakina, *Re-Re* ez zen tabernaren benetako izena, goitizena baizik. Itxura denez, inauteri batzuetan Gerardo Garmendia

mozorrotu, kalera irten eta egun osoa eman zuen "re-re" esaten; eta orduz gero, denek deitu zioten "Re-Re".

**Argazkia:** Faustino Elkoro  
**Berriemaile:** Jesus Elkoro  
**Urtea:** 50-60ko hamarkada

## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Mondragoe,  
Santa  
Barbaratik

Mondragoeko argazki bi erakutsi dizkizuegu dagoeneko, eta ikuspegi orokorreko azken argazki bat zor genizuen. Aurreko biak Kurtzetxikitik eta Altamiratik aterata bazeuden, esan beharrik ez dago argazki hau nondik aterata dagoen. Mondragoe asko aldatu da, baina gaurko-Santa Barbara ez da ordukoaren berdina, ezta gutxiago ere. Nola aldatu diren gauzak...



± 1920

Joan den asteko argazkia nondik aterata zegoen argi eta garbi ikusten da. Indalecio Oiangurennek mendian gora egin behar izan zuen.



2001

Gaur egun, Santa Barbara igotzeko, bide berria egin dago. Zapatekin ederto asko joan daiteke goraino, lokatzaren beldur barik.

S. CARRASCAL S.L.

**Guk egindakoak:**

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikan erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tel/Faxa: 943 79 01 82

Monte  
taberna

Maialako arrabala, 11  
Tel.: 943 79 20 56

HIES  
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

CLUB  
IYOLA

Elgetara bidea  
BERGARA  
943 76 11 29

# Eguberri

hauetan

# FORUM

izango duzu gidari



SPORTLAND. Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate



**ALMERA. AUTO BAT EROSI  
BEHAR BADUZU, LEHENENGO  
HAUXE PROBA EZAZU.**

AGIAN, PENTSATUKO DUZU HEMEN  
NAGOELA NISSANEK HEMEN EGOTEKO  
ORDAINDU DIDALAKO. EGIA DA.  
BAINA EZ NIZUKE EGIA EZ DEN EZER ESANGO.  
ALMERA GASOLINA ETA TURBO-DIESEL 2.2  
INJEKZIO ZUZENEKO MOTORRAK DITUEN  
AUTOA DA. EGONKORTASUN HANDIA  
ETA DISEINU EZIN HOBEA. BENETAN,  
NISSAN ALMERA AUTO ITZELA DA.

Nissan Almera  
**2.041.000**

pezetatik aurrera  
12.266,66

**5** URTEKO  
BERMEA  
KM MUGA BARIK

**ALDIBI AUTOAK, S.A**

Zigarrola Kalea, 1 - Tel. 943 71 20 02 - 20500 Arrasate

\*Salneurri gomendagarria (Barne hartzen du: BEZ, matrikulazio zerga, garraioa, Nissan Assistance sustapen kanpaina eta bost urteko bermea kilometraje bakoitzeko). Floten, taxien, zerbitzu publikoen eta autonomoen balditzetarako, zatoz Nissan kontzesionariora. Prezio baliagarriak penintsulan eta Balear Uharteetan eta stock-ean dauden autoentzako.